

# Elebitasun desorekatuak

TXILLARDEGI



**N**ORMALA denez, eta Suomi-ko Errol-da-emaizak ezagutarazten hasiak direnez (hamar urtez behin egiten baita han Zeitsua), Helsinki lagunei egin nien galdera lehengoan.

Datu ofizialik ez badago ere, hauxe agertu bide da: berriro ere hamar urte honetan suziera atzera egin duela. Besteak beste, Vaasa inguruko udalerri suziaz *elebatar* bat, *gutxienez, elebitasun ofizialera* pasa da. *Herri horrek suziaz lurraldetasuna* galdu du, hitz batez: orain eskubide *personaletara* pasatzeko. Besteak beste, han orain arte suziera hutsuz burutzen zen eskola, elebiduna izango da; eta hezkuntza hizkuntzaren aukera gurasoen eskutik geldituko da.

—C'est fini le suédois en Finlande— esan dit etsita euskara apur bat dakien suziederuaz finlandiar lagun zahar batek. Azaldu didan ez, da suziaz *kopurua* bakarrik behera doana. Ez omen da suziera Helsinki entzuten dena, suomikadaz betetako *hizkera txar-negutxi* bat baizik. «Je vous dis: c'est fini».

Hots, Suezia aldamenean dago, Suomi-ko burgesiaren parte handi batek suziera erabiltzen du oraindik, suziazrek hizkuntz eskubidea franko dute oraindik.

Kitto, halere. Arrain handiak txikia jaten... Suomik aste hauetan ospatzen du Independentziaren 75. urtemuga. Ez da asko! 1809tik 1863ra arte, suziera izan zen han hizkuntza ofizial bakarra. Estatuaren banaketa 1883koa da (lehenengo aldiriz suomierako eskualde bat legezatu zenean). Eta Suomieren elebitasun ofiziala 1902koa da... Mendebeste akax.

Baina suomitarrek Suomitar izan nahi zuten.

Eta suomitar bihurtu dira osoki.

# Sheriffak

HASIER ETXEBERRIA



**J**AUNGOI-KOARI eskerrak azkenean baditugu sheriffak. Pozteko garaia dira hauek. Benetan. Legea

eta zuzentasuna beteko dira, behingoz, planeta guztiaren lege zabalean. Sheriffak edukiko ditugu aurki bazterretan, benetako sheriffak, sheriff amerikanoak.

Semaforoa gorrian pasatzen baduzu, hortxe etorriko zaizu John Wayne edo Clint Eastwood, gerrian colt eta guzti, kontuak eskatze- ra. Azukoz gazteekin mendirako iriteira bat prestatzeko bilerearen baten erdian, atea danba bota eta arrapaladan sartuko dira Harrelsoen gizon guztiak, balen aurkako txalekoak soinean, bixera urdina buruan.

Justizia eta legea bete egingo dira behin behingoz. Behar den bezala, herri demokratiko guztian adibide gertatzen den Estatu Batuen gidaritzapean. Zorioneko gabilza, zinez.

Nazioarteko akordioak, Ginebrako Legeak, Estatuaren Subiranotasunen muga gaindierazi du, azkenez, Ifarrameriketako Gorte Supremoak. Sheriffak bidaliko dizkigute bai, arau eta etika guztien gainetik, legea behar bezala bete dadin. Bahitu egingo dituzte gerrilarri gaiztoak, axilotu sindikalista ezkerrekoak, ito gauzak aldatzeko goseak, antzutu herri mugimenduak. Zeruak eta lurragarbitu eta berdinduko dituzte beren arau eta legeekin. Ez da izanen zulo eta zokorik *sheriffen* ekintzibide- tik salbatuko denik.

Legea lege, berriak eredu, berriak bermatzaile. Hemendik aurrera ez dugu denborarik galdu beharrik izango Justizia eta Legea bereizien dituen pentsamendu filosofikoan. Bukatu dira txorakeria horiek.

Hemendik aurrera, Mao, Marx edo Sarriren liburuaren bat irakurtzen jartzen garen bakoiz- zuten hobe izango da, bada ez bada ere, leihoak zabalik uztea, bertatik sartuko den Rambok kristalik txikitu ez dezan.

# HEMEROTEKA

EL CORREO ESPAÑOL

## Eskola hitzarmena

Jeltzaleek, sozialistek eta EEK adostasunera iristeko erakutsi duten borondatea luzatu egin behar da beren akordio politikoa benetako *eskola hitzarmen* batean gauzatu da. Hori erdiesteko beharrezkoa da Gubernuko alderdien aldetik entzutearen aldeko jarrera bat, hala nola beste talde politikoei eta, batez ere, hezkuntz komunitatearen sektore desberdinek -gurasoak, irakasleak, sindikatuak, zentru pribatuak eta Ikastolen Konfederazioa- egin ditzaketen zentzuzko erkarpenak kontutan hartzeko irerkiak egotea. Baina, era berean, azken horiek ahalegin simetrikoki egin behar dute, eta planteamendu baztertzaila edo erradikalei uko emate. Jarrera horiekin eskola hitzarmena, euskal hezkuntz sistemaren normalizazioa, litekeena da oso.

EDITORIALA



LAVANGUARDIA

## Futbolik gabeko bandalismoa

Malmoitik sortutako egoera berriaren larritasuna azpimarratu du Lennart Johansson UEFAko presidentek, berak adierazi duenez "hobe da denbora pixka bat pasatzen uztea hotzean hartzeko erabakiak eta ez bero egonda; orain izango balitz Ingalaterrak ez luke talde nazional gisa parte hartuko guk antolatzen ditugun futbolietan". Uler-

garria da Europako futbol erakunde gorenen zuzurtasun hau, batez ere Ingalaterrako futbolaren kontrako zigor berri batek ondorio bezala 'Eurokopa 96' ren antolatuntza arriskuan jarriko lukenean, hori Ingalaterran ospatzea aurrikusita dago eta. Baina larriena UEFARENtzat, orain ganberroak zigortu beharrenean eta futbol ingelese ez kondatzearen artean harrapatuta bait dago, arazoak bere indarrak gainditzen dituela da.

Harmailetan hasi zen futbol-eko biolentzia, Heyselko tra-

GALLEGO & REY/DIARIO 16

gediak argi utzi zuen bezala, baina orain estadioetako mugak gainditu ditu, Malmoo ikusi ahal izan denez. Malmoo bandalismoa ez zen jadanik futbolaren gertatu, futbolaz baliatu zen, baizik. Futbolaren inguruan dagoen ganberrokeriari buruzko hausnarketa ez da, honez gero, soilik arategiari mugatzen eta gizarte osoaren gainean du eragina, bai dituen jantziengatik bai sortzen dituen ondorioengatik.

EDITORIALA

# ZUZENDARIARI

## Zumaiako ikastolak... oraintxe aukera!

Hurrengo urterako semea Ikastolan matrikularik dudan arren ez dut erabakitzen parte hartzeko aukerarik izango. Hau hala, lerro hauek erabiltz nahi ditut zenbait hausnarketa egiteko, beste askoren artean, hauek ere, argigarri suertatuko direlakoan.

Azken hamar urteotan sarri askotan definitu da Zumaiako Ikastola Eskola Publikoaren alde eta, definitu ezetik, zenbait neurri ere hartu ditu, Ikastola herri osoari zabaltzeko eta kuotak diskriminagarri izan ez zitezen.

Orain, gure Ikastolaren egoera berezia dela eta, gainontzeko ikastolak baino lehenago tokatu zaigu egoerari aurre egitea.

Beti izan naiz eskola publiko zalea eta, gaurko eskola publikoaren aldarrikatzaile edo jarraitzaile sutsua ez izan arren, gaur Zumaiako Ikastolak duen eronkan publikoaren aldeko apostua egin nahi dut.

**Zergatik publiko?**  
Eskola eta Euskal Herri euskaldun baten aldeko naitelako.

Tamalez, gure herrian, sarri askotan euskara bategile baino banatzaile izan dugu. Hemen euskaldunak, hori besteak! Noiz arte hala? Nola euskaldun horrela gure herria? Nor ez luke amestuko Zumaiako Eskola Publiko Euskaldun bakar bat?

Honetarako urratsak ematen hasiak dira.

Gaur ezin du inork ukatu Zumaiako eskola publikoak ahalgin haundiak egin ez dituen euskaldunzate lanetan. Zer bultzatzen gaitu, bada, publikoari muzin egitera?

Denok ezagutzen ditugu Getaria, Zestoa, Oikia, Aizarna, Aizarnazabal, Aia eta abar luze batetako eskola publikoak eta ez dut inori burutik pasa ere egingo zaionik eskola hauek inoz beren euskal ereduak gal ditzaketarik. Zergatik Zumaiaren horienbeste bel- dur? Galdua ote dugu geure buruenganako sinestea?

**Irakaskuntza eskubide bat dugulako.**

Beti pentsatu ohi dit irakaskuntza herri- ritar guztion eskubidea dugula eta horik doha- nek irakaskuntzaren defentsa.

Zer gertatuko zaigu orain Zumaiako publi- kooa baztertu eta etxera gurasoen bizkarretik eraitzeari ekiten badiogu? Erantzuna oso erraza da. Garai batean jaitziako kuotak berriro ere goratu behar izango dira eta in- formazioak huts egiten ez badugu ez da or- daindu beharko den kuota hutsaren hurren- goa izango. Beraz, dirua berriro ere dis- kriminagarria izango da. Egia da ordaindu ezin duenari ez zaila kobratuko baina horrek ez du dohaintsan eskubidea beteko eta, eate- ra gogorra bada ere, oso desberdina da esku- bide baten jabe izatea herri zorretan ego- tea.

**Bestalde gogoratu EAJ, PSOE eta EEK izenpetu berri duten eskola paktoaren ondo-**

rioz, eskola pribatuek jasoko duten suben- tziara orain ikastolek jasotzen dutena baino txikiagoa izango dela eta horrek arazoak arindu baino astundu egingo duela, kuotak oraindik ere gorago eramango dituelarik.

**Kalitateko irakaskuntzaren alde**


Zoritxarez Zumaiako Ikastolari beti baliatu- ziaio bigarren eskuko azpiegituraz baliat- zia eta orain, behar bezalako etxe baten jabe egiteko aukera dugunean, berriro ere bigar- ren mailako batekin geratu behar al dugu?

Azkenik, bada borondate publiko honetan atzera egitera bultzatuko nindueken arazo bat eta hau, Ikastolako langileen lanpostuak mantendu ezina izango litzateke. Hau da nere ustez publikazio bideari atzera emateko arrazoi bakarrenetako eta lortu ezinezkorik ez dagoela frogatzen duten elementuak dau- den arren, hala nola duela gutxi alkatetzak eginko adierazpenak edo Urola Erdirako egindako plan estrategikoan langileei egin- dako proposamenak, arazo honek batu behar ditu guztion indarrak.

Hausnarketa hauek bukatzeko hamaika errezele utzi eta etorkizunera itxaropenez begiratzeko ordua dugula uste dut. Bidea ekinarekin egiten da eta oraintxe dugu aurrera pasu handi bat egiteko aukera ezin hobea.

ANTTON PEÑALBA Zumaiako (Gipuzkoa)

# GAIA JARRITA



## Uda hasiera

Udaberria ateratu zaigu kaxkarra edo ustela udaran gaude sartuak edo sartuko gerade beela batzuek plaian proba beharko eguzkiaren epela beste batzuek belarra ontzen saiatu behar gara lanean edo oporralditan ondo pasa zazutela.

JUAN MARI LOPEZ



Batzorde Patekidea: 250+ F., Lege Gondaldua, SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORRELDAL

Kontseilari Ordezkarri: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerente: FERMIN LAZKANAO

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak: LUZIAN ETXEZAHARRETA, INAKI URIA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitate: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

**Erredakzio eta Tailerra:** ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria / 37 15 45 / Faxa: 36 54 93  
**Egoitza soziala, Publizitate eta Administrazio:** Antso Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia / 46 90 22 / Faxa: 45 59 57  
**Arabak:** San Antonio, 20-1.erker. / 01005 Gasteiz / 23 38 72 / Faxa: 23 38 73  
**Nafarroa:** Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irritzi dorrea) / 31011 Iruñea / 37 15 78/79 / Faxa: 17 80 77  
**Bizkaia:** Barroeta Aklamar, 2-1.eskuma / 48002 Bilbo / 423 90 62 / Faxa: 423 94 60  
**Lapurdi / Nafarroa Behere / Zuberoa:** 2. Galuperia kaita / 64100 Baiona / 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11